



Bou Gipuzkoa goian eta Bou Donostia behean. HITZA



Alejo Bilbao bermeotarra eta Pedro Ruiz de Loizaga gernikarra. HITZA



Vendaval izeneko bakailaontzia, geroko Bou Nabarra. BUSTURIALDEKO HITZA



Goian, Bou Nabarra. Behean, Iparreko boua. HITZA

ABERRIA DEFENDATZEN

Historia» www.gudontzidia.eu webgunean eskualdeko bizilagunek Euzkadiko Gudontzidian egindako lana azaltzen da, besteak beste.

MAITE ORIE

Guda Zibilaren amaieraren 70. urteurrenaren atarian, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Matxixtako elkarteak 'Euzkadiko Gudontzidiek' Gerra Zibilean izandako ibilbideari buruzko webgunea jarri dute martxan berriki: www.gudontzidia.eu. Bertan, Errepublikako Armadari laguntzeko sortu zen Itsas sailaren historia laburbiltzen da, gudontzidian aritu zirenen inguruko informazioa ere jasoz, tartean, eskualdeko bizilagunen gainekoa. Izan ere, hainbat izan ziren gudontzidian borrokatu ziren Busturialdeko lagunak.

1936ko urriaren 15ean sortu zuen Jose Antonio Agirre lehendakariak Itsas saila Defentsa departamenduaren baitan, eta Joaquín Egia Untzueta izendatu zuen haren zuzendari. Euzkadiko Gudontzidiaren Laguntza'ko Ontzitaldearen zereginak, batik bat, Errepublikako Armadari itsas trafikoa eta arrantza lanak babesten laguntzea eta euskal portuen sarrera-irteerak kontrolatzea ziren, urpeko minetatik libre izateko. Gerraren bilakaera politiko eta militarrik baldintzaturik, Gudontzidiak Itsas Armadarekiko autonomia lortu zuen gerora.

Itsas armada eratzeko Joaquín Egia gerraontzi bihurtu zituen hainbat arrantzontzi. Horietao batzuk armatu egin zituen (bou armatuak) eta beste batzuk urpeko

minak antzemateko gailuz hornitu zituen (minaketariak). Ontzi horien tripulazioa trebakuntza militar eskasa zuten 900 gizonek osatu zuten. Horietao 138 izan ziren bouetan nahiz minaketarietan eta ontzi laguntzaileetan aritu ziren Busturialdeko bizilagunak, gehienak bermeotarrak.

Bouak eta minaketariak

Egiak lau bakailaontzi aukeratu ondoren, 1936ko urriaren 30ean izenpetu zituen Jose Antonio Agirrek Eusko Jaurlaritzak ontzi horiek konfiskatzeko dekretuak. Horrela igaro ziren Mistral (Bou Gipuzkoa), Vendaval (Bou Nabarra), Euzkal-Erria (Bou Bizkaya) eta Hispania (Bou Araba) ontziak itsas indarraren parte izatera. Guztiei 101,6 milimetrotako kanoi bana jarri zieten brankan eta airekontrako zortzi milimetrotako bina ametraladore zubian. Bou Gipuzkoa ontziari 76,2 milimetrotako kanoi bat gehitu zitoten popan. Gudontzidian sartu ondoren, 101,6 milimetrotako kanoia erantsi zieten denei popan, Arabari ezik, galdarak egotera txarrean zitu elako.

Gerora Goizeko-Izarra, Iparreko-Izarra, Donostia (lehenagoko Virgen del Carmen gudontzi armatu frankista), Santa Rosa (Gazteiz) eta María Begoña (Iruña) ontziak gehitu ziren Gudontzidira. Bou armatu horiek guztiak berun grisez margotu zituzten, amuletan, beltzez, izenaren lehen hizkia

zeramatela, baita ikurrina brankan eta Errepublikaren bandera masta nagusian ere.

Minaketariak 1936ko irailaren amaiera aldera erabili zituzten lehenbizi. Danak-Ondo eta Marce arrasteko ontziak izan ziren horretarako erabili zituzten lehenengokak, baina, beharrak bultzatuta, 24ra arte iritsi zen flota hori eta jatorrizko izenak kendu eta Dletik D24ra artekoak eman zizkieten. Minak aurkitzeko eta desaktibatzeko eta itsasbazterra gauzez zaintzeko lan osagarrietara baxurako sei arrantzontzi batu zitzaizkien ondoren. Lletik L6ra arteko ize-

900 gizonek osatu zuten Gudontzidia eta horietako 138 eskualdeko bizilagunak ziren

nak hartu zituzten horiek. Halaber, hainbat kanoa automotore, yate eta txalupa motoredun ere erabili zituen Euzkadiko Gudontzidiak. Minaketariak eta txalupa laguntzaileak ere berun-grisez margotu zituzten, baina horiek ez zeramaten inolako armarik.

Gudontzidian aritu ziren Busturialdeko bizilagunak hainbat alderdi eta sindikatuko kideak ziren, besteak beste, Euzko Alderdi Jeltzaleko, Euzko Langileen Alkartasunako, Izquierda Republicana-ko, Union General de Trabajadoreseko, Itsasontzietako Makinariari Elkarte Nagusiko, Euzkadi Mendigoizale Batzako, Euzko Abertzale Ekintzako nahiz Confederación Nacional de Trabajadoreseko kideak. 138 bizilagun horiek ontzi ezberdinetan bo-

rorkatu ziren, ezarri zitzaizkien destinoaren arabera.

Eskualdeko gudariak

Besteak beste, Alejo Bilbao Beltran de Gebara (Bermeo, 1903-1973) eta Pedro Ruiz de Loizaga Urigoitia (Gernika, 1906-1992) nabarmendu ziren Gudontzidian, kapitainak izan baitziren biak. 1936an Euzkal-Erriabou armatuko L. ofiziala izendatu zuten Alejo Bilbao eta abenduan komandante, Bizkaya bihurtu zenean. Yorkbrook ontzia erreskatatu zuen Matxixtako (37-03-07) eta Bermeoko bombardaketan ere parte hartu zuen (37-05-01) italiarrek okupatua zegoen. 1937ko abuztuaren 22an Gazteiz ontziko komandante egin zuten. Santoñan preso hartu zuten, tripulazio guztiarekin batera, hilaren 27an, eta espetxean egon zen 1943. urtera arte. Gero berriz Naviera Vascongada aritu zen lanean, erretiratu arte.

Pedro Ruiz de Loizaga, bestalde, Merkantzia Ontziteriako pilotoa zen kapitaina izan orduko. 1936ko abenduan izendatu zuten Iparreko Izarra bou armatuko kapitain. Gerora Itsasoko Karabineroetan sartu zen kapitain gisa. Margarita Taberner motorebelauntziaren agintea eman zioten eta gerra amaitu zenean Frantziara bildu zen babes bila. Burgaña kapitainarekin Venezuelara joan zen handik, bi bapore txikitari (Donibane eta Bigarrena) beste marinel eskaldun batzuk eramanez, eta han txek jarraitu zuen lanean itsasoan.

Armada Errepublikarraren gerraontzi nagusietan postu garrantzitsuak hartu zituzten Itsas Erreserbako merkantzia ofizialak ere

asko izan ziren. Esaterako, Joaquín Palacios elantxobetarra. Jorge Juan ontziaren bigarren komandantea izan zen eta Pedro Loiola bermeotarra Jose Luis Diezen makina-buru eta bigarren komandantea. Gernikako Lucio Solamegi SAC-2aren ontzi-tenientea izan zen eta Geronimo Zabala bermeotarra, aldiz, ontzi-alfereza. Amadeo Uribe busturiarra ere ontzi-alfereza izan zen beste ontzi batean.

Hain postu garrantzitsuak lortu ez zituzten arren, aberriaren alde lan eskerga egin zuten beste hainbat izan ziren. Gainera, batzuk hil egin ziren borrokan edo istripuak tarteko, eta zenbait zauritu ere izan ziren. Juan Bengoetxea (26 urte), Juan de Muxika (23 urte), Francisco Elorduy (25 urte), Feliciano Gotxi (37 urte), Silvestre Leniz (23 urte), Marcelino Madariaga (27 urte), Restituto Ormaetxea (37 urte), Pedro Orobiogotia (28 urte), Miguel Rekalde (24 urte), Santiago Telletxea (26 urte), Nemesio Alastra (24 urte), Manuel Ormazabal (53 urte), Andoni Arruti (23 urte), Pedro Elgezabal (38 urte), Lorenzo Basterretxea (26 urte), Pascual Idoriaga (35 urte) eta Victoriano Requeiro (34 urte) izan ziren hildakoak. Zaurituak, aldiz, Escolástico Uribarri (Busturia), Jesus Aldamiz-Gogekoa (Gautegiz Arteaga) eta Basilio Badiola (Gernika-Lumo) izan ziren. Pedro Isusik (Forua) biza hartu zuen gaixotasuna zela eta.

138 gizon horiek herria defendatu zuten itsasoan eta aberriaren alde egindako lan hori ahanzturan gera ez dadin lagunduko du www.gudontzidia.eu-k.

» GUDONTZIDIAN ARITU ZIREN BUSTURIALDEKO BIZILAGUNAK, HERRIZ HERRI

Euzkadiko gudontzidiaren pertsonala, herriz herri.

Arratzu

■ **Andres Salegi Irusta.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ).

Berneio

■ **Ricardo Atrikallende Telletxea.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Donato Andonegi Telletxea.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Jesus Arketa Anakabe.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Justo Artiatx Telleria.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Aniceto Astoreka Goienetxea.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Nicolas Astrolaga Allika.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan Azkarate Arakua.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Emilio Azpeitia Amesti.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Luis Bajeneta Batis.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Santiago Basabe Rekalde.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Juan Beltran de Gebara.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan Bengoetxea Bilbao.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Goizeko Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 26 urte.

■ **Zacarias Bengoetxea Udaondo.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Hilario Bengoetxea Uriondo.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Luis Bengoetxea Uriondo.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan Antonio Bilbao Azkarate.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Alejo Bilbao Beltran de Gebara.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Gregorio Bilbao Bilbao.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Fernando Bilbao Iturri.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Fermin Calzada Zendagorta.** Izquierda Republicana. Union General de Trabajadores.

■ **Pedro Canal Alboniga.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan de Muxika Mugartegi.** Union General de Trabajadores. Destinoa: Goizeko Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 23 urte.

■ **Juan de Uriarte Asteinza.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Jose Etxaniz Larruzea.** Itsasontietako Makinariaren Elkarte Nagusia.

■ **Pedro Etxaniz Larruzea.** Itsasontietako Makinariaren Elkarte Nagusia.

■ **Juan Etxebarria Bilbao.** Union General de Trabajadores.

■ **Francisco Elorduy Bilbao.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa:

Gipuzkoa. Baja: Hildakoa. Martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 25 urte.

■ **Julian Errekatxo Gaubeka.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Esteban Exposito Bilbao.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Santos Fradua Araujo.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Jesus Gabantxo Elorza.** Izquierda Republicana.

■ **Rufino Gabilondo Oliden.** Union General de Trabajadores.

■ **Leocadio Galdaras Abando.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Iñaki Galdona Canal-Etxebarria.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Ignacio Garro Goitia.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Florencio Garteiz Egiguren.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan Gaubeka Atola.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Feliciano Gotxi Ispizua.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Goizeko-Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 37 urte.

■ **Esteban Getxo Bilbao.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Elias Ibarra Beltran de Gebara.** Euzkadiko Mendigoizale Batza. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Antonio Iturrizaga.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Moises Larrabeiti Bilbao.** Union General de Trabajadores.

■ **Esteban Larrauri Garteiz.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Valentin Larreategi Otaola.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Felix Leniz.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Silvestre Leniz Bilbao.** Izquierda Republicana. Union General de Trabajadores. Destinoa: Nabarra. Baja: Hildakoa. 1937ko martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 23 urte.

■ **Marcelino Madariaga Muruaga.** Union General de Trabajadores. Destinoa: Goizeko-Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 27 urte.

■ **Ricardo Murgika Muruaga.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Julio Muruaga Goienetxea.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Candido Ormaetxea Beitia.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Restituto Ormaetxea Beitia.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Hispania; Nabarra. Baja: Hildakoa. 1937ko martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 37 urte.

■ **Pedro Orobiogotia Aberasturi.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Goizeko-Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 28 urte.

■ **Eugenio Orozko Lopategi.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Pedro Alejandro Ortube Etxebarria.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Julian Portuondo Urbarri.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Miguel Rekalde Basterretxea.** Izquierda Republicana. Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Gipuzkoa. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 24 urte.

■ **Francisco Renteria Ispizua.** Euzko Abertzale Ekintza.

■ **Jose Renteria Ispizua.** Izquierda Republicana.

■ **Leoncio Renteria Lauzirika.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Alejandro San Nicolas Aurtentexea.** Izquierda Republicana.

■ **Ignacio San Nicolas Aurtentexea.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ).

■ **Antonio Santa Marina Iragorri.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Martin Santiago Gabantxo.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ).

■ **Vicente Santiago Marfagon.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Eugenio Santos Olano.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Lucio Soto Madariaga.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan Soto Ugalde.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Eugenio Telletxea Bilbao.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ).

■ **Remigio Telleria Angeles.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Santiago Telletxea Astoreka.** EAJ. Destinoa: Goizeko-Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 26 urte.

■ **Pedro Torre Elorza.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Gabriel Ugarteburu Jaio.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Angel Urbano Amable.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Cosme Uriarte Barandika.** Izquierda Republicana.

■ **Juan Uriarte Kanaletxearria.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Sabino Uriarte Renteria.** Izquierda Republicana.

■ **Gonzalo Urbarri Uriondo.** Izquierda Republicana.

■ **Vicente Uriondo Ibarluzea.** Euzko Abertzale Ekintza.

■ **Martin Urkidi Gametxo.** Union General de Trabajadores.

■ **Rufu Uriaga Bilbao.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Gregorio Verdes Izagirre.** Euzko Abertzale Ekintza.

■ **Busturia**

■ **Alejandro Bilbao Mendiola.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Buenaventura Etxebarria Lezamiz.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Silvestre Izagirre Arrospide.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Escolastico Urbarri Larruzea.** Confederacion Nacional del Trabajo. Destinoa: Bizkaya; Ciscar. Baja: Zauritua. 1937ko otsailaren 2a. Zergatia: Istripua.

■ **Amadeo Uribe Asteinza.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Francisco Uribe Asteinza.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Serapio Zabala Arrien.** Izquierda Republicana. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Ea**

■ **Nemesio Alastra Madarieta.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

Destinoa: Mistral; Nabarra. Baja: Hildakoa. 1937ko martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 24 urte.

■ **Eugenio Alzola Kortabitarte.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Claudio Landa Garatea.** EAJ. Euzko Langilleen Alkartasuna.

Elantxobe

■ **Policarpo Amutxategi Longa.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Jose Arego Abaroa.** Euzko Abertzale Ekintza. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Kelmen de Erkiaga Trotiaga.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ).

■ **Pedro de Erkiaga Trotiaga.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Segundo Goigogana Landabaso.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Vidal Goigogana Landabaso.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Manuel Ormazabal Muniategi.** Union General de Trabajadores. Destinoa: Nabarra. Baja: Hildakoa. 1937ko martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 53 urte.

■ **Leon Zubieta Omagogeakoa.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Errigoiti**

■ **Estanislao Arribalzaga Zuazo.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Forua**

■ **Pedro Isusi Jaio.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Mistral; Nabarra; Cuartel. Baja: Hilabete 1 baino gehiagoko baja. 1937ko otsailaren 13a. Zergatia: Gaixotasuna.

■ **Gautegiz Arteaga**

■ **Juan Jose Aberasturi Legina.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Jesus Aldamiz-Gogea.** Union General de Trabajadores. Destinoa: Alque/D7. Baja: Zauritua. 1937ko maiatzaren 26a. Istripua.

■ **Jose Alluntis Learreta.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Andoni Arruti Larruzea.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Euzkal-Eria. Baja: Hildakoa. 1936ko abenduaren 2a. Istripua.

■ **Esteban Arruti Larruzea.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Gregorio Arruti Larruzea.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Valeriano Astorkia Arrizabalaga.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Pedro Elgezabal Aberasturi.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: Vendaval/Nabarra. Baja: Hildakoa. 1937ko martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 38 urte.

■ **Anastasio Ensunza Idarraga.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Hilario Iribar Saldegi.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Nicomedes Loiola Ugalde.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Jacinto Urberuaga Gerrikaetxearria.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

Gernika-Lumo

■ **Basilio Badiola Arroita.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Destinoa: Gipuzkoa; Cuartel; D-5. Baja: Zauritua. 1937ko martxoaren 5a. Zergatia: Borroka. 23 urte.

■ **Lorenzo Basterretxea Garai.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ).

■ **Lorenzo Basterretxea Garai.** Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ). Destinoa: Goizeko-Izarra. Baja: Hildakoa. 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. 26 urte.

■ **Pedro Ruiz de Loizaga Urigoitia.** Izquierda Republicana.

■ **Ibarrangelu**

■ **Juan de Dios Telletxea Abadia.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Domingo Urrutxua Arano.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Kortezubi**

■ **Pascual Idoriaga Intxausti.** Euzko Langilleen Alkartasuna. Destinoa: D-17; Ciscar; D-17. Baja: Hildakoa. 1937ko abuztuaren 14a. Zergatia: Istripua. 35 urte.

■ **Mendata**

■ **Fernando Zabaleta Abaitua.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Muxika**

■ **Isidro Astoreka Larraskitu.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Ricardo Beaskoetxea Bilbao.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Sabino Erdaide Astoreka.** Union General de Trabajadores.

■ **Jose Fullaondo Bilbao.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Mundaka**

■ **Vicente Artadi Bilbao.** Euzko Abertzale Ekintza. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Ignacio de Zabala Aierbe.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Felipe Gametxo Goitia.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Juan Ibarluzea Sangroniz.** Union General de Trabajadores.

■ **Galo Ordorika Galdona.** Euzko Abertzale Ekintza.

■ **David Ordorika Gonzalez.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Juan Manuel Ordorika Gonzalez.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Victoriano Requeiro Trebolazabala.** Itsasontietako Makinariaren Elkarte Nagusia. Destinoa: Goizeko-Izarra. Baja: mota Hildakoa. Data 1937ko urtarrilaren 17a. Zergatia: Mina. Adina 34.

■ **Jose Ventura Zaldunbide Rivas.** Union General de Trabajadores.

■ **Sukarrieta**

■ **Luis Arratibe Zubiaga.** Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Gregorio Arteta Bilbao.** Euzko Alderdi Jeltzalea. Euzko Langilleen Alkartasuna.

■ **Gregorio Izagirre Iturbe.** Euzko Alderdi Jeltzalea.

■ **Julian Izagirre Iturbe.** Euzko Langilleen Alkartasuna.